



## **EUSKARAREN MARATOIA UDALETXE BERRIAREN BISITAK**

Euskararen maratoiko ekintzetako bat udal berriaren bisitak izan ziren. Bisita hauen bitartez herritarrek udal berrira hurbildu eta barrutik nolakoa den ikusteko aukera izan zuten. Asteburu osoan zehar 31 bisita gidatu egin ziren udaletxe berrian. Guztira 536 herritarrek ezagutu zuten udaletxe berria eta udalak martxan jarri duen bidegorria.

Honekin batera, herritarrek udalarekin harremana euskaraz sustatzeko informazioa eman zitzaien (euskararen bidegorria). Bukaeran balorazio eta galdera orri bat banatu zitzaien. Parte-hartze departamentutik interesgarria iruditu zitzaigun iritzi hauek jaso eta kudeatzea.

## **EDUKIAK**

Sarreran aipatu bezala, herritarrek bisita egin ondoren izan zitzaketen zalantzak jaso eta kudeatzea interesgarria iruditu zaio parte-hartze departamentuari.

Bisita ondoren bi orrialde banatu zitzaizkien bisitariei. Bata bisitaren balorazioa eta bestea galderen orria. Bisiten balorazioaren informazioa euskara zerbitzuak beraien balorazioa egiteko erabiliko dute eta galderen orria parte hartzetik kudeatuko da.

Galderen orri hau, bisitarietatik nahi zutenek bete zituzten. Hauek parte-hartzeko departamentutik kudeatuko dira. Prozesuak 4 pauso nagusi ditu:

- **GALDETEGIAK JASO (EUSKARA ZERBITZUAK):**

Bisita gidatuek 30 bat minutu iraun zuten. Bisitaren bukaeran balorazio orria eta galdera orria banatu zitzaien bisitariei.

Bisita guztietatik 296 pertsonak bete zituzten balorazio orriak eta 42 pertsonak galderen dokumentua bete zuten. Aipatu beharra dago, balorazio orrietan jendeak ekarpena edo galdera ere idatzi dituela.

- **GALDETEGIAK DEPARTAMENTUETARA BIDERATU:**

Herritarrek egindako galdera hauek departamentu ezberdinetara bideratuko dira. Departamentuek erantzuna emateko 15 eguneko epea izango dute asko jota. Auzoz auzo ez bezala, galdera hauek erantzun zuzena izango dute. Hau da, ez da nahi departamentuak galdera hauen inguruan proiektuak sortzea. Galdera horiei momentu honetan dagoenarekin erantzutea nahi da.

- **ERANTZUNAK BERBIDALI:**

Behin departamentuek galderak erantzuten dituztenean, parte-hartzeko departamentua arduratuko da erantzun hauek bideratzeaz.

- **ERANTZUNAK HERRITARREI BIDALI:**

Galdera orrian datuak jartzeko eskatu zitzaien. Horrela, posta elektronikoz edo posta arruntez erantzuna jasotzeko aukera eman zitzaien.


Kasu batzuetan galderak egin dituzte baina ez dute daturik utzi. bisiten bukaeran aipatu zitzaien erantzuna jaso nahi bazuten daturen bat uztea



***Lasarte-Oriako Udala***  
***Ayuntamiento de Lasarte-Oria***  
(Gipuzkoa)

garrantzitsua zela. Daturik utzi ez duten galderen erantzuna gorde egingo genuke.

Balorazio txosten bat prestatu nahi da herritarrek egindako galdera eta erantzunekin.



## PAUSO NAGUSIEN DATUAK

### **GALDETEGIAK JASO (EUSKARA ZERBITZUAK):**

Bisita gidatuek 30 bat minutu iraun zuten. Bisitaren bukaeran balorazio orria eta galdera orria banatu zitzaizen bisitariei.

Bisita guztietatik 296 pertsonak bete zituzten balorazio orriak eta 42 pertsonak galderen dokumentua bete zuten. Aipatu beharra dago, balorazio orrietan jendeak ekarpena edo galdera ere idatzi dituela.

### BALORAZIO ORRIEN DATUAK:

Bisitari buruzko iritzi orokorra:			
OSO ONA	ONA	TXARRA	OSO TXARRA
167	126	0	0

Interesgarria iruditu zaigu:			
OSO ONA	ONA	TXARRA	OSO TXARRA
121	163	8	0

Zer iruditu zaizu gidarien lana:			
OSO ONA	ONA	TXARRA	OSO TXARRA
187	107	0	0

Ulertu duzu zer den euskararen bide gorria:			
OSO ONDO	ONDO	ONDO EZ	BATERE EZ
141	108	34	8

Interesgarria iruditzen zaizu euskararen bidegorria:			
OSO INTERES.	INTEREGARRIA	EZ OSO INTERES.	BATERE EZ INTERES.
165	118	7	0



**BALORAZIOA HERRITARREK ADIERAZITAKO OHAR ETA EKARPENAK:**

Dena zoragarria

Mila esker zuen lanagatik

Dena oso ongi, oso interesgarria.

Oso ondo pasa dut.

Oso arraroa egin zait

Bisita euskaraz egitea ideia ona

Euskararen bidegorria zer den ez dugu ondo ulertu. Falta zaiona izan da ze ekintza egingo dituzten "bidegorria" egiteko.

Oso ondo iruditzen zait herritarrok udaletxea ezagutu ahal izatea

Ondo zegoen baina beste bi solairuak ikusi nahi nituen

Azken solairua ezberdina dirudi, hura erakustea interesgarria izango litzateke.

Alkatearentzako bulegoa erakustea gustatuko litzaidake.

Oso garestia

Mucho derroche de dinero!

Mantenu lanetan asko gastatu beharra.

400 000€ udaletxea "ekipatzeko" gehiegikeria iruditzen zait. Murriztu, birzikla, berrerabili!

Udala behar beharrezkoa zen. Ikastolako jangela ere. Asko gara, txikiak, metro gehiago behar ditugu, ez kendu dugun hori. ANIMO.

Gure udaletxe berria espazio huts gehiegi ditu, horrelako espazioekin Guggenheim-a dirudi.

Handiegia behar denarentzat.

Lotsagarria halako lekua herri honetan.

Beharrezkoa al zen horrelako eraikuntza bat Lasarte baterako?

Herriarentzat lokal beharrean gaude; goazen ba udalaren lokalak denon artean erabiltzea

Ondo antolatu tokia eta erabili baliagarriak. Mesedez!

Herriko taldeentzat erabilgarriak izan daitezke

Libre geratzen diren geletan ludoteka egitea

Libre geratzen diren geletan ludoteka jartzea.

Gela horietako bat euria egiten duenean hurrek jolasteko izan daiteke

Gazteentzako lokala

Gazteentzako lokala

Gazteentzako lokala

Euria egiten duenerako gazteentzat lokal bat

Inaugurazio data, noiz

Irekitzen duzueenerako puskatuta egongo da (udaletxea)

Kamerak jarri puskatzen duena jakiteko

Zergatik gorde dira harrizko arkupeak.

Lorategiak ez daude pertsonentzako prentsatuak

Aterpe bat egokia izango litzake.

Aterpe bat egokia izango litzake.

Plazan iturri bat behar dugu

Plazan iturri bat behar dugu

Plazan iturri bat behar dugu

Plazan iturri bat behar dugu

Plazan iturri bat behar dugu

Plazan iturri bat behar dugu

Plazan iturri bat behar dugu

Komun publikoak jarri plazan

Zer egin behar da hemen lan egiteko?

Zabaletakoan ederra lana egin da.




*Lasarte-Oriako Udala*  
*Ayuntamiento de Lasarte-Oria*  
(Gipuzkoa)

HIZKUNTZARI DAGOKIONEZ DATUAK:

Bisita euskaraz izan dira. Eta balorazio eta galdetegiaren orriak betetzerako garaian aukera eman zaie hizkuntza aukeratzeko. Beti ere euskarari lehentasuna emanez. Emaitzak ondorengoak dira.

Balorazioak eta galdetegiak betetzerako orduan hizkuntza:	
EUSKARA	GAZTELERA
275	21




## **GALDETEGIAK DEPARTAMENTUETARA BIDERATU:**

Herritarrek egindako galdera hauek departamentu ezberdinetara bideratuko dira. Auzoz auzo ez bezala, galdera hauek erantzun zuzena izango dute. Hau da, ez da nahi departamentuak galdera hauen inguruan proiektuak sortzea. Galdera horiei momentu honetan dagoenarekin erantzutea nahi da. Galderak herritar bakoitzak egindakoarena arabera dago multzokatua.

GALDERAK
Nere ustez interesgarria izango litzateke parkeren bat egitea lorategietan. Kanpaldian margotu dituzten gauzen garbiketa, nork ordainduko du? Espero dut margotu dutenak
Atzeko baratza zertarako? Hau handiegia ez al da? Hau nola mantendu 20°C urte osoan. 9000€ ez al da gehiegi? Monjek diruarekin zer egin dute, 4500€-ekin.
Zenbat ordaintzen duzue leihoak garbitzeagatik
Ikusi dugu altzairuetan asko aurreztu dela baina mantentzea egiteko orduan ere nolabait aurrezteko biderik aurkitu ahal da?
Zertarako horrenbeste eraikin Lasarte-Oria ez al gara pasatzen ari?
Eraikuntzaren erosketaz aparte, egin al duzue mantentze lanaren aurreikuspen bat?
Estalpe bat kanpoko parkean Lurra nibelatu. Iturri bat plazan.
Askatasun enparantzan zonalde estalki bat jarri haurrekin egon ahal izateko. Udaletxean elkarte edo herritarrei bulegoak edo lekuak uztea lanerako. Fototeka fundamentuzkoa jarri herriko argazkia patrimonioak babesteko. Liburutegia handitu Kiroldedia berritu Ekintza gehiago kulturarekin lotuak; artea, patrimonioa
Estalpe bat kanpoko parkean Lurra nibelatu. Iturri bat plazan.
Parkeko altuerak kendu Estalpe bat kanpoko parkean Iturri bat plazan. Lehenengo solairuko gelak elkarteek erabili ahal izatea
Erabilera publikoa izatea, herritarrentzat. Kultur etxearen luzapen bat izatea. Elkarteek udaletxea erabiltzeko aukera
Noiz irekiko da udaletxea
Zergatik tapatu zen pareta zuriz pintatzen eta ez zegoen bezala Noiz irekiko da udaletxea
Euria egiten duenean gazteentzat lokal bat edukitzea
Zergatik ditu bista hain politak
Zertarako jarri zituzten kamerak
Mertzero museoa erabat baztertzea pena emango litzaidake. Orain ezin bada aurrera eraman (diru kontuak direla edo( utzi, itxoin, eta aurrerago, pixkanaka jarri. Beti ere beste zerbitzuak eraikin zahar eta berrian sartzen badira.
Estalpe bat kanpoko parkean



Iturri bat plazan.
Lehenengo solairuko gelak elkarteek erabili ahal izatea Gazteentzat lokala Estalpe bat kanpoko parkean
Gaztelekuaren funtzionamenduaren informazioa jasotzea gustatuko litzaidake. Kiroldegi berria noizko Brijidetako parkea, parkea izan dadila. Ez zelai polit hutsa. Udaletxe berrian "vivero de empresas" jartzea ondo egongo litzateke krisialdiari aurre egiteko
Zergatik ez daude leiho irekiak
Marbellatik zenbat Kilometrotara gaude. Nere uste, lorategiak txapuza bat direnez, nork ordaindu behar ditu berritze lanak. zergatik ez arduradun politikoak eta arduradun teknikoak
Iturri bat plazan. komun publikoak Ikusten da gastu izugarria izango dela aire egokitua eta berogailuarekin. Nolatan ez zen lehenago pentsatu eguzki plakak eta leihoak. Garesti aterako zaigu.
Iturri bat plazan. komun publikoak
Zer gertatuko da garajeekin. Noizko. Atzealdeko parkearekin zer. Beste erabilpenik pentsatuta dago.
Zer gertatuko da udaletxe zaharrarekin.
Zergatik egon da hainbeste denbora ireki gabe Egia al da hainbeste diru gastatu zuten ez zegoela bestelako beharretarako.
Udaletxe zaharra zerbitzuan jarraituko al du. Azken solairuan alkatearentzako gela handia egongo da.
Zergatik atera zitzaion arkupeari Harria gero estaltzeko?
Para que tantas oficinas espero que algunas sean para disfrutar las personas del pueblo
Bide gorriari buruzko informazioa ez dut ondo ulertu
Noizko inauguratzeko asmoa? Zer asmo duzue Mercero Museoa izateko zenarekin?
Udaletxe berriko parkingeko plazak zeinen erabilerarako dira?
Pentsatuta al dago "energias renovables" udaletxe berrian?
Eraikuntza hau dena beharrezkoa zela pentsatzen al zen?
Udaletxe zaharrarekin ez da nahiko, udaletxe hain handia behar da. Udaletxe berriak gela asko daude. Zer iruditzen zaizue gela hauek aterpetxe bezala erabiltzea.
Zein izango da dauden kamara guztien erabilera? Sarrerako aldapa oso irristakorra da. Aukera egongo al da bulegoak alokatu edo erabiltzeko? Hizkuntza, irudi ez sexistak erabiltzera bultzatzen dut.
Zergatik ez dira mantendu arkupeetako itxura zaharra?Hau da, harrizko itxura?
Herriko bizilagun zein elkarteek aukera al dute hemengo hainbat bulego erabiltzeko?zeintzuk izango dira baldintzak? Baldintzak ordutegi aldetik?askok eta askok lan boluntarioa 20:00 aurrera egiten baitira.
Zer egin behar duzue udaletxe zaharrarekin?Mercero Museoa?Benetan?



### **ERANTZUNAK BERBIDALI:**

Behin departamentuek galderak erantzuten dituztenean, parte-hartzeko departamentua arduratuko da erantzun hauek bideratzeaz. Galdera asko antzekoak izan direnez multzokatu egin dira departamentuek erantzuna emateko erraztasuna izan dezaten.

### **ERANTZUNAK HERRITARREI BIDALI:**

Galdera orrian datuak jartzeko eskatu zitzaaien. Horrela, posta elektronikoz edo posta arruntez erantzuna jasotzeko aukera eman zitzaaien.

Kasu batzuetan galderak egin dituzte baina ez dute daturik utzi. bisiten bukaeran aipatu zitzaaien erantzuna jaso nahi bazuten daturen bat uztea garrantzitsua zela. Daturik utzi ez duten galderen erantzuna gorde egingo genuke.

Ondorengo koadroetan departamentu ezberdinek emandako erantzunak agertzen dira:

#### **Bidegorriari buruzko informazioa ez dut ondo ulertu.**

Informazio hau eskuragarri dago udaletxean.

#### **Hizkuntza, irudi ez sexistak erabiltzera bultzatzea.**

Noski!!!!

#### **Azken solairuan alkatearentzako gela handia egongo da?**

Bigarren solairutik laugarren solairura administraziorako guneak dira, hau da, udal langileak joango dira.

#### **Oso garestia!**

Saiatzen ari gara administratiboez gain beste erabilpen batzuk ematen, herritarragoak. Edozein kasutan Garbi dago, gastu eta mantentzearen aldetik garestia izango dela.


#### **Mucho derroche de dinero:**

Teniendo en cuenta que el anterior gobierno ha gastado 12.324.623€ en éste proyecto, pues si.

**Ikusi dugu altzarietan (ez altzairuetan!) asko aurreztu dela baina mantentzea egiteko orduan ere nolabait aurrezteko biderik aurkitu ahal da?**

**Eraikuntzaren erosketaz aparte, egin al duzue mantentze lanaren**





**aurreikuspen bat?**

**Mantenu lanetan asko gastatu beharra.**

**400 000€ udaletxea "ekipatzeko" gehiegikeria iruditzen zait. Murriztu, birziklatu, berrerabili!**

Mantentze lanen kostua oso handia da eraikin berrian, aurretik ez zaigu iruditzen honi garrantzia eman zizaionik eta diseinua praktikotasunari gailendu zaiola. Guk orain daukagunarekin aurrezte aldera, eta baliabideak kontuan izanda, ahalik eta saiakera handiena egingo dugu.

**Ikusten da gastu izugarria izango dela aire egokitua eta berogailuarekin. Nolatan ez zen lehenago pentsatu eguzki plakak eta leihoak? Garesti aterako zaigu.**

**Pentsatuta al dago "energías renovables" udaletxe berrian?**

**Hau nola mantendu 20°C urte osoan?**

**9 000€ ez al dira gehiegi? Zertarako?**

Gastua handia izango da eraikin guztia tenperatura egonkor batean mantentzeko, udaran 2 aparatu bakarrik martxan edukita gastua handia bazen urte guztian zer esanik ez.

Eraikina egiteko orduan ez zen gehiegi kontuan hartu energia berriztagarrien erabilera eta gaur egun eguzki plaka bakarra dago udaletxe berriko sabaian eta hau ura berotzeko bakarrik da. Gure asmoa hau aztertzea izango da eta ahalik eta gehien aurrezte mantentzean.

**Zenbat ordaintzen duzue leihoak garbitzeagatik?**

Urtean hiru aldiz garbitzea aurreikusten da eta aldioroko gastua 2937,50€ koa izango da, beraz argi dago gastua ez dela txikia.

**Zergatik ez daude leiho irekiak?**

Eraikina egin zuen arkitektoak horrela diseinatu zuelako eraikina eta gure ustetan garrantzia gehiago eman zitzaiolako itxurari mantentzeko garaian duen gastu ekonomikoari baino.

Hala ere ez da bazterten aurrera begira leihoak irekitzea.

**Sarrerako aldapa oso irristakorra da.**

Jarrita dagoen harri motarengatik da, beharrezkoa ikusten bada espaloietan botatzen den produktu berbera botako litzateke.

**Egia al da hainbeste diru gastatu zutenez ez zegoela bestelako beharretarako?**



Beharrak beti daude baina aurreko gobernuak lehentasuna eraikin honi eman zion, gure ustez akats handian horrelako inbertsio bat egitea baina orain eraikita dago eta ahalik eta funtzionamendu egokiena bilatzen saiatuko gara.

**Hau handiegia ez al da? (udaletxe berria):  
Handiegia behar denarentzat.**

Kontuan izanda oraingo Udaletxe zaharrak 1046m<sup>2</sup> dituela eta berriak 3382m<sup>2</sup>, hirukoitza dela, guri ere gehiegizkoa iruditzen zaigu, bai itxura aldetik, bai bolumen aldetik.

**Eraikuntza hau dena beharrezkoa zela pentsatzen al zen?  
Lotsagarria halako lekua herri honetan.**

Garbi dagoena da udaletxe zaharra txikia geratu dela eta beste zerbait behar zela. Arazoa da ikusgarritasunari begira eraiki zutela berria alkatetzak herria kontrolatu nahian (eta ez funtzionaltasunari begira,).

**Gure udaletxe berria espazio huts gehiegi ditu, horrelako espazioekin  
Guggenheim-a dirudi.  
Beharrezkoa al zen horrelako eraikuntza bat Lasarte-Oria baterako?**

Egia esan Lasarte-Oria bezalako herri batentzako handikeria bat iruditzen zaigu, baina gobernuan sartu ginenean honekin topatu ginen eta gure asmoa da berrantolaketa bat pentsatu eta ahalik eta erabilerarik egokiena ematea.


**Zergatik horrenbeste eraikin Lasarte-Orian, ez al gara pasatzen ari?**

Oraingo udal gobernu honekin ados dago gehiegi eraiki da denbora gutxian eta gainera eskaera kontuan izan gabe, hau da, eskaera maila baxuagoa da eraiki dena baino eta etxebizitza dezente daude hutsak.

**Udaletxe zaharrarekin ez da nahiko, udaletxe hain handia behar da.  
Udaletxe berriak gela asko daude. Zer iruditzen zaizue gela hauek  
alberge bezala erabiltzea.**

Oraingoz espazioa berrantolatzen ari gara eta erabilera funtzionalago batean ari gara pentsatzen.

**Udaletxean elkarte edo herritarrei bulegoak edo lekuak uztea lanerako.  
Lehenengo solairuko gelak elkarrekin erabili ahal izatea  
Elkarrekin udaletxea erabiltzeko aukera  
Aukera egongo al da bulegoak alokatu edo erabiltzeko?**



**Herriarentzat lokal beharreen gaude; goazen ba udalaren lokalak denon artean erabiltzea**  
**Erabilera publikoa izatea.**  
**Herriko taldeentzat erabilgarriak izan daitezke**  
**Ondo antolatu tokia eta erabili (baliagarriak) mesedez!**  
**Libre geratzen diren geletan ludoteka egitea.**  
**Gela horietako bat euria egiten duenean hurrek jolasteko izan daiteke.**

Eraikuntzaren antolamendu birplanteamendu bat egiten ari gara eta ideia guztiak baliagarri zaizkigu. Udaletxe zaharreen ere espazio hutsak geratuko dira eta posibilitate bat litzateke elkarteek erabiltzea. Eta udaletxe berriari dagokionean guretzako behe eta lehenengo solairuek kutsu guztiz publikoa hartzea garrantzitsua da. Horretarako proposamen proiektu bat gauzatzen ari gara, beti ere herriak dituen beharrak aztertuz eta nola ez jasotako proposamenak kontuan hartuz.

**Para que tantas oficinas espero que algunas sean para disfrutar las personas del pueblo.**

Estamos haciendo un nuevo planteamiento para el funcionamiento del ayuntamiento. No queremos que sea sólo para la administración, nuestra idea es que una parte sea pública y que los lasarteoriatarras tengan oportunidad de utilizarlo. Ahora se está realizando un estudio sobre las necesidades que vemos en pueblo y siempre teniendo en cuenta las propuestas de los ciudadan@s.


**Herriko bizilagun zein elkarteek aukera al duten udal berriko hainbat bulego erabiltzeko? Zeintzuk izango dira baldintzak? Eta baldintzak ordutegi aldetik? Askok eta askok lan boluntarioa egiten dugu 20:00 aurrera egiten baitira.**

Oraingo gobernuaren nahia ordutegia zabaltzea eta herritarrentzat irekitzea izango litzateke, horretarako antolamenduaren azterketa lantzen ari gara.

**Euria egiten duenean gazteentzat lokal bat edukitzea.**  
**Gazteentzat lokala**  
**Euria egiten duenerako gazteentzat lokal bat**  
**Gazteentzako lokala**

Gaztelekua 2013an zabalduko da eta bertan nerabe zein gazteek tokia izango dute.

**Fototeka fundamentuzkoa jarri herriko argazki patrimonioak babesteko.**



**Ekintza gehiago kulturarekin lotuak; artea, patrimonioa.  
Udaletxe berrian “Vivero de empresas” jartzea ondo egongo litzateke krisialdiari aurre egiteko.**

Udaletxearen erabileraren birplanteamendu bat ari gara egiten eta herritarrek hau bezalako proposamenak adieraztea oso aberasgarria iruditzen zaigu.

**Kultur etxearen luzapen bat izatea.  
Liburutegia handitu.**

Idea oso ona iruditzen zaigu eta kontuan izanda eraikinaren erabileraren birplanteamendu bat egiten ari garela, kontuan hartuko dugun proposamena izango da.

**Zer asmo duzue Mercero Museoa izateko zenarekin?  
Mercero museoa erabat baztertzea pena emango lidake. Orain ezin bada aurrera eraman (diru kontuak direla edo) utzi, itxoin; eta aurrerago, pixkanaka jarri. Beti ere, beste zerbitzuak eraikin zahar eta berrian sartzen badira.**

Herritarrei irekitzea da gure asmoa, hau da, erabilera publikoa izatea baina oraindik ze erabilera eman zehazteko daukagu.

**Zer gertatuko da udaletxe zaharrarekin.  
Udaletxe zaharra zerbitzuak jarraituko du?  
Zer egin behar duzue udaletxe zaharrarekin? Mercero museoa?  
Benetan?**

Gune batzuk udal langileentzako aurreikusten dira, eta soberan geratutakoa plangintza orokorraren arabera izango da.

**Noiz irekiko da udaletxea?  
Inaugurazio data, noiz?  
Noiz inauguratzeko asmoa?**

Data bat ematea zaila ikusten dugu berrantolamendu bat beharrezkoa iruditzen baitzaigu eta teknikoki ere aldaketa batzuk egin beharrean aurkitzen garelako. Ondo kudeatu beharreko gaia da eta honek denbora ematen du.

**Zergatik egon da hain beste denbora ireki gabe?  
Irekitzen duzuenarako puskatuta egongo da**

Errezeptzioa da arazoa. Obra hain handiak prozesu luzea eskatzen du.



--

**Zergatik jarri ziren kamerak.  
Zein izango da dauden kamara guztien erabilera?  
Kamerak jarri puskatzen duena jakiteko.**

Bere garaian aurreko gobernuak erabakita jarri ziren kamerak baina oraingoz ez daude funtzionamenduan eta horrela jarraituko dute.

**Zergatik ez dira mantendu arkupeetako itxura zaharra?hau da, harrizko itxura?  
Zergatik tapatu zen pareta zuriz margotua zeta ez zen utzi zegoen bezala?  
zergatik atera zitzaion arkupeei harria gero estaltzeko???  
Zergatik gorde dira harrizko arkupeak?**

Manposteriako arkuak ziren eta bere argamasa (harriak lotzeko "zementua") nahiko kaltetua zegoen. Horregatik eta akaso iragazkortasun gehiago lortu nahi izateko hauek estali ziren.

**Atzealdeko parkean zer?beste erabilpenik pentsatuta dago?  
Lorategiak ez daude pertsonentzat pentsatuak.  
Brijidetako parkea, parke aizan dadila. Ez zelai huts polita.  
Marbellatik zenbait kilometrotara gaude. Nire ustez, lorategiak txapuza bat direnez, nork ordaindu behar ditu berritze lanak? Zergatik ez, arduradun politikoak eta arduradun teknikoak? Parkeko altuerak kendu.  
Nire ustez interesgarria izango litzateke parke bat jartzea lorategietan.  
Lurra nibelatu**


Udal gobernuaren nahia alde batetik txakurrik gabeko gunea izendatu eta aterpe bat egitea litzateke hau da, zonalde honi beste erabilera bat eman, hau lantzen ari gara baina baliabideak kontuan izan behar dira eta denbora eramango duen proiektua da.

**Atzeko baratza zertarako?**

Udaletxe berriaren atzeko parterrietaz ari bazara, udal gobernuaren nahia alde batetik txakurrik gabeko gunea izendatu eta aterpe bat egitea litzateke, hau da, zonalde honi beste erabilera bat eman, hau lantzen ari gara baina baliabideak kontuan izan behar dira eta denbora eramango duen proiektua da.

**Kanpaldian margotu dituzten gauzen garbiketa nork ordainduko du?  
Espero dut margotu duenak.**

Hesiaren margotzea ezabatzeko beharrik ez dugu ikusten. Zergatik? Jabetza



pribatua du eta horrela margotuta txuri urdin baino politagoa geratzen da. Beraz gure aldetik dena margotzea proposatuko genuke beti ere txukun geratzeko moduan.

**Estalpe bat kanpoko aldean**  
**Askatasun enparantzan zonalde estaldu bat jarri haurrekin egon ahal izateko.**  
**Aterpe bat egokia izango litzateke.**

2013an ideien konkurtso bat egitea da gure asmoa eta 2014an eraikitzea. Hala ere aurrekontuaren araberakoa izango da erabakia. Orain Eusko Jaurlaritzaren erantzunaren zain gaude, ea hau posible den jakiteko.

**Iturri bat plazan.**  
**Plazan iturri bat behar dugu.**

Momentuz Okendon iturri bat jarriko da eta Hipodromo etorbidean dagoena berriro ere funtzionamenduan jarriko da.

**Komun publikoak**  
**Komun publikoak jarri plazan.**

Ikerketa bat egin zen eta hiru komun publiko beharko liratekeela herrian izan zen ateratako ondorioa. 2007.urtean komun bakoitzak 50.000€ balio zituen eta gaur egungo egoeran zaila ikusten da. Beste aukera izan liteke udaletxe berriko komunak herritarrei irekiak izatea.

**Zer gertatuko da garajeekin?**  
**Udaletxe berriko parkingeko plazak noren erabilerarako dira?**


Aurten obra osoa errezibitu bezain pronto martxan jarriko da garajeen kontua.

**Kiroldegi berria noizko??**  
**Kiroldegia berritu**

Gure nahia da. Badakigu egitea oso zaila izango dela egoera ekonomikoa larria delako, baina legegintzaldi honetan proiektua gutxienez osatzen saiatu nahiko genuke.

**Gaztelekuaren funtzionamenduaren informazioa jasotzea gustatuko litzaidake**

Orain arte atera diren udal aldizkarietan Gaztelekuari dagokion informazioa



jaso duzue, hala ere laster martxan jarriko da eta bilerak egingo dira funtzionamenduaren inguruan eta informazioa eskuragarri egongo da nahi duenarentzat.

**Zergatik ditu bista hain politak?**

Pozten gara dituen bistak politak iruditu zaizkizulako.

**Monjek diruarekin zer egin dute 4500€-ekin?**

Argi dago jabetza batek salneurri bat duela eta ondoren horrekin egiten dena jabearen kontua da.

**Zer egin behar da hemen lan egiteko?**

Oposaketak gairitu eta listetan sartu.

**Zabaletakoan ederra lana egin dena**

Bai horixe!!!